

IKASLEAREN GIDA

DILAN V. MODULUA

KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

HEFALL, Oñati Plaza 3,

Gipuzkoako Kanpusa

Donostia

Sarrera.....	3
Graduko konpetentzia orokorrak eta modulu lanaren ikaskuntza emaitzak	5
Bi proiektutan ardaztutako moduluaren nondik norakoak: Urmaela eta GATAI.	9
URMAELA	10
Helburuak:	10
Taldeen egitura eta funtzionamendua:.....	11
Lan gidatuaren deskribapena:	11
Ebaluazioa, lan-entregak eta kronograma:.....	12
GATAI.....	17
Helburuak:	17
Taldeen egitura eta funtzionamendua:.....	18
Lan gidatuaren deskribapena:	18
Ebaluazioa, lan-entregak eta kronograma:.....	19
Eranskinak:.....	24

Sarrera

HEFA IIko ikasketa planean ezarri gisa, Lehen Hezkuntzako Gradu hirugarren ikasturte akademikoan V. modulua landuko da. Bi lauhilekoetan zehar landuko da, eta bi proiektu pedagogikotan oinarrituko: Urmaelean eta GATAIn. Ane Zabaleta izango da moduluko koordinatzailea 2025-2026 ikasturtean.

Proiektua	Irakasgaia	Kreditu-kopurua	Irakasleak eta taldeak
URMAELA	Matematika eta bere Didaktika II	%20 (1.8 kr.)	Iera Arrieta (31) Ane Izagirre (32)
	Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan II		Joxe Mari Etxabe eta Ane Zabaleta (31) Joxe Mari Etxabe, Lidia Caño eta Ane Zabaleta (32)
GATAI	Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (10 kr)	%20 (1.8 kr.)	Uxue Diez (31 Literaturan) Amaia Mariezkurrena (32)
	Gizarte Zientziak eta beren Didaktika II (9 kr)		Ursula Luna eta Leire Albas (31) Ursula Luna eta Unai Nabaskues (32)

Bi proiektuak oinarritzen diren ikasgaietan landuko da V. moduluko lana, eta bertan dauden ikasgaietako eduki eta gaitasunak izango dituzte ardatz. Irakasgai horietan berariazko lanketa egingo da, eta irakasle gaiak ikasgai

horietako irakasleekin batera garatuko dituzte proiektuok, gela barnean nahiz kanpoan.

Proiektuak aitzinera eramateko erabiliko diren metodologia nagusien eta bestelako xehetasunen berri emango da orriotan, bi proiektuetan bat egiten duten eta bakoitzak bere horretan behar dituen azalpenak eta jakingarriak ematen direlarik.

Graduko konpetentzia orokorrak eta modulu lanaren ikaskuntza emaitzak Lehenik eta behin, txosten honek azpimarratu nahi du bi proiektuetan ahoz nahiz idatziz maila minimoa adieraziko dela euskarazko produkzioetan, eta irakasgaia gainditzeko ezinbestekoa izango dela hizkuntza koherentziaz, zuzentasunez eta egokitasunez erabiltzea, ahoz eta idatziz. Hortaz, moduluko lana eta irakasgaia gainditzeko ezinbestekoa izango da hizkuntza gaitasuna neurtzeko baliatuko diren frogak eta zereginak gainditzea. Bi proiektuen bitartez, honako hauek dira irakaslegaiak landu eta eskuratu asmo ditugun konpetentziak:

Graduko konpetentzia orokorrak	GATAI	URMAELA
G001- DIZIPLINARTEKOTASUNA CURRICULUM-ARLOETAN Lehen Hezkuntzako curriculum-arloak, dagozkien diziplinen arteko harremana, ebaluaketarako irizpideak eta dagozkien irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozeduren inguruko ezagutza didaktikoen edukia ezagutzea.	X	X
G002 - TALDE-LANEKO IRAKASKUNTZA-IRAKUNTZAREN DISEINUA Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatzea, bai indibidualki eta bai zentroko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean ere.	X	
G009 - GIZARTE-ERANTZUKIZUNA ETA IRAUNKORTASUNA Etorkizun iraunkor bat lortzeko garaian, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa balioestea.	X	X
G0013 - HIZKUNTZA GAITASUNA Euskara menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna frogatuz bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguru batean gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.	X	X

<u>Ikasgaietako gaitasunak:</u> M02CM01 - Zientzia esperimentaletako (Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia) oinarrizko printzipioak eta lege nagusiak ulertzea. Zientzia horien eskola-curriculumua ezagutzea. Eguneroko bizitzarekin lotutako zientziei dagozkien arazoak planteatzea eta konpontzea. Zientziak kultur fenomeno gisa baloratzea. Zientziaren, gizartearen eta garapen teknologikoaren arteko elkarrekintza aitortzea, baita etorkizun iraunkorra bilatzeko beharrezkoak diren hiritartasun-jarrerak ere. Curriculumeko edukiak garatzea eta ebaluatzea baliabide didaktiko egokien bidez, eta ikasleen oinarrizko gaitasunen eskuratzea sustatzea. M02CM02 - Gizarte-zientzien oinarrizko printzipioak ulertzea. Gizarte-zientzien eskola-curriculumua ezagutzea. Historia- eta geografia-ikaskuntza ikuspegi hezigarri eta kulturaletik integratzea. Herritartasun demokratikoa eta pentsamendu sozial kritikoa sustatzea. Herrien arteko bizikidetza baketsurako erakunde publiko eta pribatuen garrantzia baloratzea. Erlijioaren fenomenoaren historian zehar eta kulturarekin duen harremana ezagutzea. Kurrikulumeko edukiak garatzea eta ebaluatzea baliabide didaktiko egokien bidez, eta ikasleen gaitasun egokiak sustatzea. M02CM03 - Oinarrizko gaitasun matematikoak eskuratzea (zenbakizkoak, kalkuluari buruzkoak, geometrikoak, espazio-errepresentazioak, estimazioa eta neurria, informazioaren antolaketa eta interpretazioa, etab.). Proposamen matematikoak aztertzea, arrazoitzea eta komunikatzea. Eguneroko bizitzarekin lotutako arazoak planteatzea eta konpontzea. Matematikaren eta zientzien arteko harremana baloratzea, pentsamendu zientifikoaren oinarrietako bat den heinean. M02CM04 - Hizkuntza eta komunikazio-zientzien oinarrizko printzipioak ulertzea. Literatura-hezkuntza jasotzea eta haur-literatura ezagutzea. Hizkuntzen eta literaturaren eskola-curriculumua ezagutzea. Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan zuzen eta egoki hitz egitea, irakurtzea eta idaztea. Idatzizko hizkuntzaren ikaskuntza-prozesua eta haren irakaskuntza ezagutzea. Irakurketa sustatzea eta idaztera bultzatzea. Beste hizkuntza batzuk dituzten ikasleen hizkuntza ofizialen	X X	X X
---	-----------------------------------	-----------------------------------

ikaskuntzan sor daitezkeen zailtasunak ezagutzea. Hizkuntzak testuinguru eleaniztunetan ikasteko egoerei aurre egitea. Curriculumeko edukiak garatzea eta ebaluatzea baliabide didaktiko egokien bidez, eta ikasleen gaitasun egokiak sustatzea.		
G003 - Testuinguru kultur anitz eta eleaniztunetan hizkuntzak ikasteko egoerei modu eraginkorrean heltzea. Irakurketa eta testuen iruzkin kritikoa sustatzea, curriculumean jasotako ezagutza-arlo zientifiko eta kultural desberdinetako testuak oinarri hartuta.	X	X
G010 – Ikasgelako praktiken inguruan hausnartzea, irakaskuntza berritzeko eta hobetzeko. Ikaskuntza autonomo eta lankidetzazkoarentzako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.	X	X
G013 – Euskara menperatzea, hizkuntza-ekoizpen eta -ulermen zuzen eta egokia erakutsiz, hezkuntza-testuinguru eleanitzean jardun profesionala garatzeko, eta hizkuntza- nahiz kultura-aniztasunarekiko errespetuzko jarrerak sustatuz (egokitua).	X	X

Ondorengo taulak, bi proiektuon diseinuak berekin dakartzan moduluko lanaren ikaskuntza emaitzak proposatzen ditu:

Modulu lanaren Ikaskuntza Emaitzak
<u>URMAELA eta GATAI:</u> IE1.- Datuak jaso, aztertu, interpretatu eta aurkeztea. Jakintza-arlo desberdinak integratzea (G001, G009). IE2.- Taldeka Lehen Hezkuntzarako jarduerak garatzea eta baliabide didaktiko ezberdinak erabiltzea (M02CM03, M02CM01). IE3.- Jarduerak euskaraz era egokian idatziz adieraztea (G013). IE4.- Saioak diseinatu eta inplementatzea eta irakasgai desberdinetako jakintza-arloak integratzea (M02CM02, M02CM04).



Bi proiektutan ardaztutako moduluaren nondik norakoak: Urmaela eta GATAI.

Diziplinarteko proiektu hauek Lehen Hezkuntza Graduako 3. ikasturtean kokatzen dira, aurreko ikasturteetan oinarrizko arloak eta moduluak jorratu ondoren. Ikasturte honetan, proiektu bakoitzean bina irakasgai uztartuko dira: Urmaelean Matematika eta bere didaktika II (MD_II) eta Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan II (NZLHI-II) irakasgaiak eta GATAI proiektuan Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika eta Gizarte Zientziak eta beren Didaktika II. Ondorengo bi azpiataletan azalduko dira. Atal honen baitan, bi proiektuetan landu asmo diren helburuei, taldeen egiturari, funtzionamenduari, proiektu bakoitzari buruzko xehetasunei, ebaluazioari eta kronogramari buruzko azalpenak emango dira.

URMAELA

Urmaeleko ikas-egoera ondorengo galderatik abiatzen da: "Klima aldaketaren ondorioz urtez-urte airearen tenperaturak igotzen jarraitzen badu, zein ondorio ikusiko ditugu urmaeleko uretan?". Galderari erantzuteko lagungarriak izan daitezkeen aldagaiak identifikatu, laginketa antolatu, datuak jaso, aztertu, interpretatu eta erarik ulergarrienean irakurleari aurkeztu eta eztabaidatu behar dira, ondorioak proposatu eta galdera nagusia erantzun ahal izateko. Modu honetan, 3. mailako konpetentziak diziplinartekotasunean landuko dira.

Urmaelaren proiektuaren oinarria eta bere baitan jasotzen diren ezaugarri esanguratsuenak hauek dira:

- Iraunkortasuna eta klima-aldaketaren jabetzea.
- Kanpo-espazioak baliabide gisa erabiltzea.
- Errealitatea era orokortuan lantzea.
- Datuak euskarri dituen proiektuetan oinarritutako irakaskuntza.
- Urmaelaren baitan egin daitezkeen jarduerak garatu eta hauen inguruko hausnarketa burutzea, Urmaelen Sarean kokatzen diren eskoletara zabaltzeko aukerarekin.
- Talde-lana, ikaskuntza kooperatiboa eta lankidetzak bultzatzea.
- 3. mailako bi irakasgai hauen ikuspuntuak (edukiak...) bateratzea.

Helburuak:

Urmaelarekin lotutako diziplinarteko lanaren helburu orokorra da urmaela konpetentzia zientifiko zein matematikoa lantzeko baliabide gisa ulertzea. Honekin lotuta, Lehen Hezkuntza Graduan honako helburu espezifikoak zehazten dira:

- Urmaelaren perimetro, azalera eta bolumenaren estimazio eta kalkulu hurbildu bat gauzatzea.
- Urmaelean ematen diren fenomeno fisiko-kimikoei buruzko lanketa gauzatzea

- Testuinguru erreal bateko datuak euskarri dituen proiektuetan oinarritutako irakaskuntza aurrera eramatea bere baitan hartzen dituen faseak (problemaren planteamendua, plangintza, datu bilketa, datuen analisi eta interpretazioa, eta ondorioen komunikazioa) ezagutu eta aplikatzea.
- Irakaslegaiak proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren bidez, konpetentzia zientifikoa eta matematikoa eskuratzeko tresnak eta estrategiak eskuratzea.

Taldeen egitura eta funtzionamendua:

Lana taldeka egingo da eta talde bakoitzean gehienez lau ikasle egongo dira. Taldeak mistoak izatea gomendatzen da eta osaera ikasleek adostua izango da.

Taldeak guztiek parte hartu behar dute lanaren etapa guztietan.

Oharra: Lan taldeak osatzeko orduan, kontuan izan ikasle bakoitza zein laborategiko taldetan dagoen. Lan talde batean ezingo dira nahastu laborategiko talde praktikoko desberdinetako ikasleak; beraz, GL berdinetan dauden ikasleekin gauzatuko dira taldekatzeak.

Lan gidatuaren deskribapena:

Testuingurua: 2020-2021 ikasturtean Lehen Hezkuntzako graduako 1. mailako ikasleek (Aranzadi elkarteko kideen laguntzarekin) HEFA II-ko urmaela sortu zuten Zipitria eraikineko kanpoko belardian. Urmael hau Eskoletako Urmaelen Sarean integratuta dago (<https://www.urmaelaeskolan.eus/>).

Urmaela sortu zenetik hona, lehenengo mailako praktikatan ikusi zenuten bezala, organismo mota desberdinak agertu dira urmaelean, igela barne, eta ekosistema konplexu eta dinamiko bat garatu da. Bada ordea, planetari orokorrean eta beraz, urmaelari ere eragingo dion mehatxu bat: klima aldaketa. Azken urteotan planetaren berotzea gertatzen ari dela ukaezina da, eta gurean ere, tenperatura aldaketa hauek nabariak dira.

Abiapuntua: Klima aldaketaren ondorioz urtez-urte airearen tenperaturak igotzen jarraitzen badu, zein ondorio ikusiko ditugu urmaeleko uretan?

Lanaren prozedura:

- Lehen urratsa: Lan taldeen osaketa, urmaelaren egitura ezagutzea, aldagaien identifikazioa, laginketaren diseinua, neurketa gailuen erabilera ezagutzea eta datu bilketarako protokoloa ezartzea.
- Bigarren urratsa: Irailetik Abendura datu bilketa egingo da taldetan eta urmaelaren ezaugarrietako batzuek definituko dira.
- Hirugarren urratsa: Lehen lauhilekoaren amaieran lan idatziaren lehen entrega bat egingo da, ordura arte bildutako informazioa jasotzen duena.
- Laugarren urratsa: datuen lanketa eta interpretazioa egingo dira hasierako galderari erantzun ahal izateko, datuetan oinarrituta eta egindako argumentazioa justifikatuz.
- Bosgarren urratsa: Lan idatziaren behin-betiko entrega egingo da, ordura arte bildutako informazioa, datuen analisisa eta hitzezko zein marrazki bidezko interpretazioa jasotzen duena.

Ebaluazioa, lan-entregak eta kronograma:

Hona hemen Urmaeleko proiektuari dagokion kronograma orientatiboa eta entreegi buruzko xehetasunak:

HILABETEA	IRAILA				URRIA				AZAROA				ABENDUA			URTAR.		OTSAILA		
ASTEAREN ZENBAKIA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
Lan modularraren aurkezpena																				
Taldeak osatu eta koordinatzaileari bidali																				
Neurketa protokoloa adostu																				
Laginketen egutegiaren argitalpena																				
Laginketak																				
Neurriaren lanketa urmaelean																				
Urmaleko lehen atala entregatu																				
Irakasle bakoitzak dagozkion jarduerak ebaluatu																				
Jasotako datuen azterketa eta interpretazioa																				
Lortutako emaitzen ondorioak eta galderari erantzuna																				
Modulu lan osoaren lan idatzia entregatu																				

- Irailak 8-12: Lan modularraren aurkezpena eta taldeen egituraketa.

- Abenduak 10a baino lehen: jarduerak entregatu irakasle bakoitzari.
- Abenduaren 22a baino lehen lanen gaineko iruzkinak ikasleei bidaliko zaizkie.
- Proiektuaren amaieran, Otsailaren 27rako: Lan idatzia entregatu. Irakasle bakoitzak erabakiko du lan modularrari dagozkion orduak klasean nola erabili.

AZKEN TXOSTENAREN ENTREGA

Talde bakoitzak txosten bakarra entregatu beharko du MD-II eta NZLHI-II irakasgaietarako. Irakasgai bakoitzeko irakasleek ebaluatu eta kalifikazio bakarra (adostua) emango diote lanari.

Txosten idatzia, eGela bidez entregatu beharko da eta ondorengo egitura izango du (zehaztapen gehiago emango dira ikasturte hasierako aurkezpenean):

Azala

- Proiektuaren izena
- Egileen izen abizenak
- Ikasturtea, taldea
- Irakasgaien izenak eta tutoreak

Aurkibidea

Lanaren atalekin eta orrialdearen zenbakiekin

Sarrera

Proiektuaren testuinguruaren azalpena eta urmaelaren inguruko azalpen orokorra txertatuko dira, baita egindako lanaren azalpen laburra zein txostenaren antolaketa deskribatu ere.

1. ABIAPUNTUKO GALDERARI ERANTZUTEKO ALDAGAIEN IDENTIFIKAZIOA ETA HASIERAKO HIPOTESIAK
2. IKERKETAREN DISEINUA
3. EMAITZAK ETA HITZEZKO ZEIN IRUDIZKO INTERPRETAZIOA
4. ONDORIOAK ETA GALDERAREN ERANTZUN ARRAZOITUA

Erreferentzia bibliografikoak

Lanean zehar aipatutako lan guztien erreferentzia osoak jasoko dira hemen APA 7. Edizioa erabiliz.

Behar izanez gero, eranskinak sartu daitezke lanean.

EBALUAZIOA

- Proiektuaren aurkezpenarekin batera eta eGelan dokumentu zehatzak eskura jarriko dira entregean balditzak eta ebaluazio errubrikak zehaztuz.
- Derrigorrezkoa da taldekide guztiek lanaren etapa guztietan parte hartzea eta irakasgaietako ebaluazio jarraiaaren baitan eskatzen diren eskakizunak betetzea.

Kasu bereziak

Edozein egoera berezi izanda irakasleekin hitz egin beharko da. Edozein aldaketa edota berezitasun haiekin adostu beharko da lehenengo egunean bertan.

Oharra: ikasgaia gainditzeko, modulua gainditu behar da; edonola ere, lekuan lekuko irakaslearen menpe egongo da azken erabakia. Bestalde, Plagioa detektatzen bada edo horren susmoa badago, UPV/EHUren protokoloa aplikatuko da (<https://labur.eus/jrdG7>). Horrek 0 puntuko kalifikazioa ekarriko luke jarduera edo lan akademikoen azken bertsioan hautematen bada; beraz, gomendatzen da esteka honen jarraibideak hasieratik jarraitzea plagioa saihesteko eta zintzotasun akademikoa betetzeko: <https://labur.eus/uZjfo>

Horregatik, oso garrantzitsua da irudiak, taulak eta erabilitako informazio iturriak behar bezala aipatzea eta erreferentziatzea. Horretarako, esteka hauetan agertzen diren APA estiloaren (7. edizioa) adibide zehatzak kontsultatzea gomendatzen da: <https://labur.eus/1F1U0> eta <http://hdl.handle.net/10810/42398>

Halaber, adimen artifizialaren (itzultzaileak barne) erabilera aitortzea beharrezkoa da honako irizpide hauek erabiliz: <https://labur.eus/LLDHk> Gramatika, adierazpena edo ortografia akats posibleak berrikustea, eta hizkuntza inklusiboaren eta ez diskriminatzailearen erabilera babestea

garrantzitsua da ere. Gida hurrengo estekan eskura daiteke:
<https://labur.eus/Sxj8Y>

GATAI

Proiektu honetan album ilustratuak eta gai gatazkatsuak lantzen dira. Gizarte Zientziak eta beren didaktika II irakasgaien zehazki eduki hauek landuko dira: herritartasuna eta pentsamendu kritikoaren garapena LHn, gai gatazkatsuen erabileraren garrantzia eta horiek nola landu. Horrekin batera, gai gatazkatsuak gelara eramateko aukera eta baliabide desberdinez hitz egingo da: albumez gain bestelako erremintak (prentsa, ikus-entzunezkoak). Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika irakasgaien, heziketa literarioan trebatzen eta album ilustratuen irakurketa kritikoa egiten ikasiko duzue, baita Lehen Hezkuntzako ikasleak interpretazio horretara gerturatzeko jarduerak diseinatzen ere.

Helburuak:

Proiektu honetan ditugun helburuak UPV/EHUren Plan Estrategikoarekin eta IKDren metodologia berritzaileen planteamenduekin guztiz bat egiten dute. Izan ere, proiektu honek zehazki helburu hauek lortu nahi ditu:

- Ikastetxeetako irakasleak eta unibertsitateko irakaslegaiak proiektutan oinarritutako Ikaskuntzaren eta Ikaskuntza-Zerbitzuaren bidez, gai gatazkatsuak album ilustratuen bidez lantzeko baliabideak, tresnak eta estrategiak eskuratzea.
- Ikasleak ikastetxeetako errealitatera gerturatu, esku-hartzea gauzatu bitartean sortu zaizkien zalantzak, kezkak, aurreikusi gabeko arazoak identifikatu eta horiei aurre egiteko aukerez eztabaidatzeko gai izatea.
- LHko ikasleek literatura irakurtzeko gaitasun kritikoa garatzeko gakoez jabetzea, eta gizarteari zein norberari buruzko irakurketak egitean genero ikuspegia txertatzen ikastea.

- Unibertsitateko irakaslegaiak zein ikastetxeetako irakasleak gai gatazkatsuen inguruko jarrera kritikoa sustatzea eta ezagutza literarioa areagotzeko diziplinarteko proiektuak sortzeko gai izatea.
- Unibertsitatearen eta ikastetxeen arteko zubiak eraikitzea, bi errealitateetako praktika onen inguruan eztabaidatzeko espazioak sortzea.

Taldeen egitura eta funtzionamendua:

Ikasturte bakoitzeko taldeen arabera, taldekatzeak hirukote, laukote edo, kasuan kasu, boskoteetan antolatuko dira.

Taldeak ikasleek osatuko dituzte, eta, arazorik izanez gero, irakasleek erabakiko dute nola osatu taldeak.

Talde bateko kide izateak berekin dakar eskoletara etortzeko konpromisoa eta taldelanean parte hartzeko betebeharra.

Talde bakoitzak koordinatzaile bat izango du, irakasleentzako erreferentziazko pertsona izango dena.

Taldeko bi irakasgaietako irakasleak izango dira proiektua zuzendu eta tutorizatuko dutenak.

Lan gidatuaren deskribapena:

Zer egin behar da?

Ikastetxe bateko gelan album ilustratu bat irakurriko duzue. Ondoren, haurrak albumaren interpretazioan sakontzeko galderak eta jarduerak planteatuko dituzue eta horren ostean, gaiari loturiko jarduerak burutuko dituzue, bi irakasgaietako edukiak eta gaitasunak barne hartuz.

Noiz?

Taldearen arabera, kronograma kontsultatu

Zenbateko iraupena izango du saioak?

Eskoletan egingo duzuen saioak bi ordu inguruko iraupena izango du, tartean atsedenaldia izanik.

Zein eskola bisitatuko ditugu?

Ikasle talde bakoitzari egokituko zaion ikastetxea eta ikasgela jakinaraziko zaio proiektua hasi bezain laster.

Zer egingo behar da saio horietan?

1-ALBUM ILUSTRATUA ozen irakurri

2- TERTULIA LITERARIOA ETA ALBUMEKO PASARTEEN LANKETA

2.1. Albumaren irakurketa kritikorako tertulia literarioa

2.2. Albumeko pasarte jakinen irakurketa sakonagoa heziketa literarioaren arabera

3-GAI GATAZKATSUAREN INGURUKO JARDUERAK: gaiaren inguruko hausnarketa sustatzeko, iturri ezberdinen erabilera oinarrituko diren jarduerak diseinatuko dituzue. Jarduera horietako bi, gutxienez, honako iturri hauetan oinarritu behar dira: ahozko testigantzak eta argazki historikoak/gaur egungoak. Horiez gain, bestelako iturriez osatu daitezke jarduerak.

Ebaluazioa, lan-entregak eta kronograma:

Moduluko lana egoki burutzeko entregatu eta kalifikatuko diren lanen kronograma GATAIren gida zehatzean dago jaso.

ZER ENTREGATU BEHAR DA?

- Talde bakoitzak portfolio bakarra igo beharko du Moduluko egelara (GATAI proiektuaren atalean). Portfolio bakarra igoko da bi irakasgaietarako.
- Saio osoaren grabazioaren bideoa edo saio osoaren grabazioa bideo mozketara ezberdinetan.

FORMATUA:

Txosten idatzia, moduluko eGela bidez eta formatu fisikoan irakaslearen bulegoan entregatu beharko da. Saioaren grabazioa (audio eta/edo bideo bidezkoa) irakasleari entregatu beharko zaio esku-hartzearen hurrengo egunean, aurrez aurre emanda.

PORTFOLIOAREN EGITURA ETA EDUKIA:

Portada

- Proiektuaren izena
- Irakurritako albumaren izenburua
- Esku-hartzea egin den eskolaren izena eta parentesi artean herria
- Egileen izen-abizenak
- Irakasgaia, ikasturtea, taldea
- Bi irakasgaien izenak eta irakasleen izen-abizenak

Txostenaren formatua:

- Izenburuak: Times New Roman 14
- Gorputz testua: Times New Roman 12
- Lerroartekoa: 1 ptu
- Testua justifikatuta
- Orrialdeak zenbakituta, behealdean, erdian

Aurkibidea

Lanaren atalekin eta orrialdearen zenbakiekin

Sarrera

300-400 hitz dituen sarrera idatzi behar da, proiektuan egin denaren azalpen laburra zein txostenaren antolaketa deskribatzen duena

1. ALBUMEN INTERPRETAZIOA ETA JARDUERA

2. ESKU-HARTZEAREN DISEINUA

3. SAIOAREN ANALISIA

Erreferentzia bibliografikoak

Lanean zehar aipatutako lan guztien erreferentzia osoak jasoko dira hemen APA 7. Edizioa erabiliz.

Eranskinak

Behar izanez gero, eranskinak sartu daitezke lanean.

GRABAZIOAK

Zer egin behar da? Saio osoa (albumaren irakurketa ozena, albumaren interpretaziorako galdera orokorrak eta pasarteen jarduerak eta gaiari loturiko hausnarketa galderak) grabatu egin beharko da mugikorrarekin edo kamara batekin eta audioan. Grabaziorik gabe ezingo da saioaren analisiari dagokion atala kalifikatu. Beraz, ikasleen erantzukizuna da horiek ongi grabatzea, saioak osorik grabatzea (nahiz eta klip edo bideo motz desberdinetan banatu) eta audioa ondo entzutea. Audioa edo ikasleen erantzunak ongi entzun ezean, ezingo da kalifikatu. Egoera horietan (bideoa eta audioaren kalitate txarra) ikasleei eskatuko zaie saio osoaren transkripzio guztia, idatziz.

Zer egin material horrekin? USB baten bidez bideoa irakasleari pasa.

Noiz? Esku-hartzearen ondorengo egunean.

EBALUAZIOA

Taldeko pertsona guztiek bete beharko dituzten baldintza hauek:

- Entrega bakoitzari lotuta zein Portfolioa osatzeko, eGelan dokumentu zehatzak izango dituzue entrega horien baldintzak eta kalifikazio errubrikekin.

- Irakasgai bakoitzean egin beharreko lanak eta entregableak irakasgai horretako irakasleak emandako gida zehatz eta ebaluazio fitxen bitartez ebaluatuko dira.
- Asistentzia derrigorrezkoa da bi irakasgaietako saio guztietan egotea; bereziki, bisiten ondorengo hausnarketa saiora zein ekimen berezietara, egonez gero. Bertan egingo diren lanak egunean bertan jasoko dira, eta hortik kanpo ez dira ordezeko lanak onartuko. Egun horietan etortzen ez diren ikasleen nota puntu bat jaitsiko da.
- Eskoletako saioa burutzea derrigorrezkoa da. Egin ezean, ikasle horrek azterketa egunean burutu beharko du gai/bloke horri dagokion atal teorikoa.

Asistentzia betetzen ez bada edo egun berezietan ez egotea

Asistentzia ez bada betetzen edo/eta egun berezietan parte hartzen ez bada, zuzenean ikaslea ez-ohiko deialdian aurkeztu beharko da (proiektuan ezingo du parte hartu). Ez-ohiko deialdian irakasgai bakoitzak zehazten du zer eskatuko den.

Kasu bereziak

Edozein egoera berezi izanda irakasleekin hitz egin beharko da. Edozein aldaketa edota berezitasun haiekin adostu beharko da lehenengo egunean bertan.

KALIFIKAZIOA	HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN DIDAKTIKA	GIZARTE ZIENTZIEN DIDAKTIKA II
Entregableak (irakasgai bakoitzari loturikoak)	15	10
PORTFOLIOA: MODULUKO ATALA	20	20

Oharra: ikasgaia gainditzeko, GATAI gainditu behar da. Bestalde, Plagioa detektatzen bada edo horren susmoa badago, UPV/EHUren protokoloa aplikatuko da (<https://labur.eus/jrdG7>). Horrek 0 puntuko kalifikazioa ekarriko luke jarduera edo lan akademikoen azken bertsioan hautematen bada; beraz, gomendatzen da esteka honen jarraibideak hasieratik jarraitzea plagioa saihesteko eta zintzotasun akademikoa betetzeko: <https://labur.eus/uZjfo>

Horregatik, oso garrantzitsua da irudiak, taulak eta erabilitako informazio iturriak behar bezala aipatzea eta erreferentziatzea. Horretarako, esteka hauetan agertzen diren APA estiloaren (7. edizioa) adibide zehatzak kontsultatzea gomendatzen da: <https://labur.eus/1F1U0> eta <http://hdl.handle.net/10810/42398>

Halaber, adimen artifizialaren (itzultzaileak barne) erabilera aitortzea beharrezkoa da honako irizpide hauek erabiliz: <https://labur.eus/LLDHHk> Gramatika, adierazpena edo ortografia akats posibleak berrikustea, eta hizkuntza inklusiboaren eta ez diskriminatzailearen erabilera babestea garrantzitsua da ere. Gida hurrengo estekan eskura daiteke: <https://labur.eus/Sxj8Y>

Eranskinak:

Eranskina 1:

LEHEN HEZKUNTZA 202 /202

V DIZIPLINARTEKO LANA:

LH - _
GA: _

TALDEAREN E-MAIL BAT:
TALDEAREN TELEFONO BAT:
TALDEAREN IZENA (aukerazkoa):

IZENA:
*ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
*ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
*ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
*ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
*ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK: